ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko otsailaren 13a, asteazkena • 19 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 5eko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea eskumen arazoa aurkez dadila, jardunbide egokien eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko lege proposamena dela eta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 51/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea urtarrilaren 15eko 8/2019 Erabakiaren bidez iragarritako lizitazioa esleitu gabe uztea eta onestea prozedura ireki bidez kontratatzea foru hauteskundeen emaitzei buruzko behin-behineko informazioa bildu, transmititu, osatu eta zabaltzeko behar diren jardunak eta sistema, bai eta behar diren zerbitzu eta gailu gehigarriak ere, 471.900 eurogatik, BEZa barne.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea Araba Garapen Agentzia SAren aldeko ekarpena, Arabako Teknologi Parkeak 2019 ekitaldian adostutako kapital handitzea harpidetzeko maileguaren amortizazioa eta interesak ordaintzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 53/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea Araba Garapen Agentzia SAren aldeko ekarpena, Fernando Buesa Arena pabilioia eraberritzeko eta handitzeko maileguaren amortizazioa eta interesak ordaintzeko 2019an.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 54/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea telekomunikazio zerbitzuen kontratuaren esleipendunen, UTE TDE-TME CCXL eta Euskaltel SA enpresen, aldeko kreditu esleipena, kontratua gauzatzeko 2019ko urtarrilaren 1etik apirilaren 22ra bitartean.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 55/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak eskaturik, kreditu transferentziako 200/2018 espedientea, 4.235 euroko zenbatekoarekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea lankidetza hitzarmena izenpetu dadila Gasteizko Udalarekin eta Vicente Abreu Elkarteen Federazioarekin, hainbat elkarteen sozietate egoitzarako lokalak onik zaintzeko eta haien funtzionamendurako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 57/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren desatxikitzea eta Gasteizko Domingo Beltran de Otazu kaleko 4. eta 6. zenbakietako (A eta B) higiezinen desafekzioa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 58/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea lankidetza hitzarmena izenpetu dadila Gasteizko Udalarekin eta Vicente Abreu Elkarteen Federazioarekin, hainbat elkarteen sozietate egoitzarako lokalak onik zaintzeko eta haien funtzionamendurako.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 59/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onestea eskola kirol kanpainan parte hartzen duten kirolariak garraiatzeko zerbitzuaren gastua, enpresa esleipendun bakoitzari dagozkion loteen arabera, 2019ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko aldirako.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 60/2019 Erabakia, otsailaren 5ekoa. Onespena ematea 18.253,96 euro esleitzeari "Pagoa Consultores Ambientales SL" enpresarentzat, zeinak esleiturik baituen Martiodako Animalien Suspertegiaren kudeaketa integralean laguntza teknikoa emateari buruzko kontratua, hura gauzatzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.13 06:39:32 Z